

Eskultura eta Paisaia

Deba

2010eko abuztua eta iraila
Agosto y septiembre de 2010



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

ALFA | arte |

 **gizarte**
kutxa

Urtero bezala, Debako Udala aurrera doa Artearen alde egiten ari den apustuarekin eta hemen aurkezten den erakusketa horren froga da; baina, aurten berezitasun batekin: Santa Maria parroki elizaren klaustro ederretik irten eta ibilbide bat egingo dugu herri osoan zehar.

Ekintza horren bidez, gure asmoa da Debako monumentuei ez ezik paisaiei eta parajei ere merezi duten balioa ematea; ederrak eta aipagarriak berez badira, baina aberastu egin nahi ditugu, ezagutzen dugun lekuaren eta leku horrek eskulturarekin duen interakzioaren artean sortzen den elkarrizketaren bidez.

Aukera bikaina da udalerriko leku bereizgarri-
netako batzuk bisitatzeko eta, oro har, eskulturaz gozatzeko, eskultura betiere herriaren "azala" osatzen duten paisaiaren, argien, koloreen eta itxuren aurrean ipinita.

Ibilbidea luzeago egin daiteke, eskultura ondare aberatsa baitugu udalerriko osoan zehar. Eskulturak hor daude eta, dagoeneko, gure historiaren eta argazki mentalaren zati dira, baina eskultura horiek denboraldi batez ugartu egingo dira, udan inguru-nearekin eta herriarekin solasean arituko diren hamar eskulturrei esker. Apustua denbora baterako da, baina baita interesgarria ere, eskulturari eta eskultura inguratzen duen guztiari merezi duen balioa ematen zaiolako.

Horrela, bada, erakusketa katalogo honen mugak baino irekiagoa eta zabalagoa da: nahi beste ibilaldi egin daitezke Itziarretik eta J. Oteizaren "Amatasuna" eskulturatik abiatu eta erakusketa hau osatzen duten gainerako eskultura ondare finkoraino eta mugikorreraino, eta, oraindik are garrantzitsua goa dena, herriaz, paisaiaz eta, batez ere, gure udalerriaz goza daiteke. Bisitatzeko gaituztenek aukera ederra dute, herria pixka bat gehiago ezagutzeko, eta debarrok gure ondarea gozatzeko eta baloratzeko.

Alfa-Arte eta Kutxari eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen, erakusketa honetarako eman duten laguntzagatik, eta eskaera bat, batez ere, debar guztiei, gureak ditugun gizatasuna, errespetua eta kultura erakusketak diraun bitartean ager daitezen. Udalekook tinko jarraituko dugu kultura eta artea lantzen, sentiberagoak, kultuagoak, libreagoak... izan gaitezen.

Como todos los años, la apuesta del Ayuntamiento de Deba por el Arte sigue adelante y la exposición que aquí se presenta es prueba de ello. Pero este año con una particularidad, salimos del hermoso claustro de la Iglesia Parroquial de Santa María para desde ahí hacer un recorrido por todo el pueblo.

Con esta acción lo que pretendemos es poner en valor, además de nuestros monumentos, el paisaje y los parajes de Deba, ya bellos y significativos de por sí, pero enriquecidos ahora con este diálogo que se forma entre el paisaje y su interacción con la escultura.

Una oportunidad magnífica para recorrer algunos de los lugares más característicos del municipio y disfrutar en su conjunto de la escultura enfrentada al paisaje, a las luces, al color, a las texturas que forman la "piel" del pueblo.

El recorrido se podría ampliar más, pues ya tenemos un rico patrimonio escultórico repartido por todo el municipio. Están ahí, son esculturas que ya forman parte de nuestra historia y fotografía mental, pero esas esculturas se ven ampliadas temporalmente por otras diez que durante el verano van a estar dialogando con el entorno y el pueblo. Una apuesta que por efímera la hace más interesante, pues da el valor que se merece a la escultura y a todo lo que le rodea.

Así pues, una exposición abierta y más extensa que lo que el presente catálogo acota, pues partiendo desde Itziar y la escultura "Amatasuna" de J. Oteiza, a todas las demás que componen el patrimonio escultórico fijo y el provisional de esta exposición, se pueden hacer cuantos recorridos se quieran y lo que es más importante aún, disfrutar del pueblo, del paisaje y, sobre todo, del paisanaje que conforma nuestro ayuntamiento. Una espléndida oportunidad a quienes nos visitan de conocer un poco más el pueblo, y a los debarras de disfrutar y valorar nuestro patrimonio.

Sólo queda agradecer a Alfa-Arte y a la Kutxa por la colaboración en esta exposición, y sobre todo, agradecer a todos los debarras porque el civismo, el respeto y la cultura que nos caracteriza se hagan presente durante esta exposición. Por parte del ayuntamiento seguimos con la firme propuesta de seguir desarrollando una labor cultural y artística que nos haga más sensibles, más cultos, más libres...

Jesús M^a Agirrezabala Goitokia

Alkatea-Alcalde



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

Alfa Artek, bere Eskultura Ezagutu programaren bidez, 2 urte daramatza kultura hedatuz, bai arlo publikoan bai arlo pribatuan.

Hala, hainbat jarduera ipini ditugu martxan denbora horretan:

- Beren lanak normalean gure instalazioetan egin dituzten egileek eginiko eskulturen erakusketak, Alfa Arte espazioan. Urtean, 2 erakusketa egin ditugu.

- Erakusketa ibiltariak, gure eskultura txiki eta ertainen bildumarekin, Euskadiko kultura etxeetako erakusketa aretoetan. Erakusketa Okendo kultura etxean (Donostiako Udala).

- Bisita gidatuak gure tailerrera eta erakusketak. Museoen Lagunen Elkarteak, Arte eta Lanbide Eskolak, Arkitektoen Elkargoa...

Bide horretatik, beste urrats txiki bat emateko asmoz eta egileekin harremanik eten gabe betiere, interesgarria iruditu zaigu guztiontzat korapilatsuak diren garai hauetan herritarrei eskultura publikoaz gozatzeko aukera ematea, eta ez daitezela baliabide faltagatik aukera hori gabe geratu.

Horren ondorioz, kontuan izanik Alfa Arten eskulturgileei zerbitzu logistikoak ematen dizkiegula, obra garrantzitsuak ditugula amaituta gure instalazioetan eta, gainera, bildumagile partikularren batek eta, nola ez, egileek beraiek musu-truk ematen diguten laguntza, 10 piezako erakusketa osatu ahal izan dugu. Piezak desberdinak dira egile, estilo eta materialei dagokienez, eta gauza bat konpartitzen dute: Alfa Arte egitasmoak daramatzen urteetan artistekin batera garatu ahal izan dituen eskultura publikoko egitasmo nagusietako batzuk gerturatzeko gogoia.

Azken batean, Alfa Artekook pentsatu genuen industria artearen zerbitzura dagoela, artea bere esanahirik zabalenean hartuta, artistei eta kultura eragileei beren proiektuak garatzeko fabrika bat izateko aukera emateko ez ezik haiek pertsonen proiektu eta talde bat ere izan dezaten, ahal duten neurrian laguntzen duten pertsonen taldea hain zuzen, eskulturak bere espazioa izan dezan XXI. mendean.

Deban aurkezten dugun lehen esperientzia honen bidez, eskultura espazio publikoan hedatzeko programa bati hasiera eman nahi zaio, sektore publikoaren eta pribatuaren elkarlanaren bidez hainbat herri eta hiritako bisitariek eskultura publikoko proiektuez aldi batez gozatzeko aukera izan dezaten.

Alfa Arte, dentro de su programa Eskultura Ezagutu, viene promoviendo desde hace 2 años la difusión de la escultura, tanto en el ámbito público como privado.

Para ello, hemos puesto en marcha varias actividades durante este tiempo:

- Exposiciones en el Espacio Alfa Arte de esculturas realizadas por autores que habitualmente producen sus obras en nuestras instalaciones. Realizamos 2 muestras al año.

- Exposiciones Itinerantes de nuestra colección de esculturas pequeñas y medianas en salas de exposición de Casas de Cultura del País Vasco. Exposición Centro Cultural Oquendo. Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

- Visitas guiadas de grupos a nuestro taller y exposiciones. Asociaciones de Amigos de Museos, Escuelas de Artes y Oficios, Colegio de Arquitectos...

En esta línea y con el objeto de dar otro pequeño paso y siempre en contacto con los propios autores, hemos visto interesante que en estos momentos complicados para todos, no sería bueno privar de disfrutar de la escultura pública a los ciudadanos por un problema de falta de recursos.

De aquí, considerando que en Alfa Arte damos servicios logísticos a los escultores y tenemos obras importantes terminadas en nuestras instalaciones, junto a la colaboración desinteresada de algún coleccionista particular y, cómo no, de los propios autores, hemos podido reunir una muestra de 10 piezas de diferentes escultores, estilos y materiales realizadas en diferentes procesos. Todas ellas no tienen en común más que ese afán por acercar algunos de los principales proyectos de escultura pública, que durante los años de existencia del proyecto Alfa Arte hemos podido ir realizando en colaboración con los artistas.

En definitiva, desde Alfa Arte nos planteamos que la industria está al servicio del arte en su sentido más amplio, dando a los artistas y agentes culturales la posibilidad de contar no sólo con una fábrica para que puedan producir sus proyectos, sino también que puedan contar con un proyecto y un equipo de personas que colaboran en la medida de sus posibilidades para que la escultura pueda tener su espacio en el siglo XXI.

Esta primera experiencia que presentamos en Deba pretende ser el comienzo de un programa de difusión de la escultura en el espacio público, y abre posibilidades para que la colaboración público-privada permita disfrutar de modo temporal de proyectos de escultura pública a ciudadanos de diferentes pueblos y ciudades.

Gipuzkoan sorturiko edo Gipuzkoarekin loturiko artista plastikoei buruz kutxak duen interesaz ez dago inolako zalantzarik. Gure arte-ondarearen bildumari begiratu bat emanda, eta 5.000 lan baino gehiagoko katalogoa osatzen dute, garbi ikusten da interes hori: hasteko, lan kopuruagatik, eta hara- tago joanda, horiek adierazten dutenagatik.

Orain, Alfa Arte eta Debako Udalaren ekimena- rekin, aukera ona dago jarduera-ildo hori berresteko, bai plastikak adierazten duenagatik eta bai arte- sorkuntza gune publikoetan zabaltzeagatik, kutxak gero eta gehiago parte hartzen duenagatik zeregin horretan. Artea gizarteratzeko kutxak duen joera horren azken adibidea duela gutxikoa da, Donostia hiriri laga baitio eta unibertsitate-guneko parke batean jarri Jose Zugastiren arte-lan bat, hain zuzen ere Alfa Artea ekoiztea.

kutxarentzat pozgarria da Debako Udalarekin lankidetzan aritzea, euskal eskulturaren abangoar- dian baitago berak babestu eta mantentzen duen eskola historikoaren bidez. Baita lankidetzara hori Alfa Arte enpresarekin egitea ere, industria-berre- gituraketaren eredu baina, konplexutasun handiko arte-proiektuen ekoizpenean erreferente handia izate- ra iritsi dena; eta hori garbi geratzen da 10 eskul- tura hauen erakusketan, uda honetan Debako gune publikoetan jarriko direlarik. Zerrenda horretan, eta beste poz bide bat gehiago da, gutxienez hiru artista badaude (Nestor Basterretxea, Jose Ramon Anda eta aipaturiko Zugasti bera) kutxaren arte-ondarearen bilduman oso lan adierazgarria dutenak.

El interés de kutxa por los artistas plásticos guipuzcoanos y los que tienen que ver con Gipuzkoa está fuera de toda duda. Un repaso a la colección de nuestro patrimonio artístico que constituye un catálogo con más de 5.000 trabajos pone de mani- fiesto ese interés, siquiera por el número de obras aunque, más allá, por lo que representan.

Llega ahora, en la iniciativa de Alfa Arte y el Ayuntamiento de Deba, una buena ocasión de rea- firmar esa línea de actuación; por lo que representa la plástica y por la difusión de la creación artística en los espacios públicos, tarea de la que kutxa participa cada vez más. El último ejemplo sociali- zador del arte por parte de la Caja es reciente en la cesión a la ciudad de San Sebastián e instalación en un parque de la zona universitaria, de una obra de José Zugasti producida, precisamente, en Alfa Arte.

Para kutxa es una satisfacción colaborar con el Ayuntamiento de Deba, vanguardia de la escultura vasca a través de su histórica escuela que acoge y mantiene. Como lo es hacerlo con la empresa Alfa Arte, modelo de reconversión industrial que le ha llevado a ser el gran referente en la producción de proyectos artísticos de gran complejidad, lo que se evidencia en la muestra de estas 10 esculturas que este verano van a incorporarse a los espacios públi- cos de Deba. Relación en la que, y es una satisfacción añadida, figuran al menos tres autores (Nestor Baste- rretxea, José Ramón Anda y el mencionado Zugasti) con una obra muy representativa en la colección de patrimonio artístico de la Caja.





“Chaos Vascos”

2008 / Brontzea-Bronce (1.500 kg. - 320x250x350 cm.)

(Egileak lagatako lana/Obra cedida por el autor)

Jedd Novatt

New York (EE.UU.) 1958

